

iruner

191. zenbakia. 2011ko otsaila



Behobiko
dendariak,
etsita



Etxeko
biziraupen
ikastaroak,
gazteei
autonomo izaten
laguntzeko.



Irun Artia nesken
futbol taldea:
ilusio handia eta
primerako
emaitzak.

PREST



MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

ATE IREKIAK

Enpresagintza Fakultatea

OÑATI OTSAILAK 24

osteguna, 18:00

IRUN MARTXOAK 3

osteguna, 18:00

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

ESKORATZA MARTXOAK 3 osteguna, 18:00

Gastronomia Zientzien Fakultatea

BILBO OTSAILAK 19 larunbata, 10:30.

Euskalduna Jauregian.

ARETO
NAGUSIAN
Etanri aurretik
izena eman!



902 110 436

www.mondragon.edu/prest



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte eta Erakunde Harremanetarako Departamentuaren laguntza jaso du.



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du.

Helbidea: Salis hiribidea, 21 - behea. 20304 IRUN. Tel: 943 63 18 78. Faxe: 943 63 18 77
irunero@infotxingudi.com
Argitaratzailea: TB S.L.
Erredakzioa
maketazioa: Ana Grijalba.
Kolaboratzailea:

Mikel Asumendi
Zuzentzailea:
Xabier Kerexeta.
Inprimategia: Antza
Tirada: 3.500 ale
Lege gordailua: SS-230-94
ISSN: 1134-0606

4.- *Lapikoan*

- Etxeko biziraupen ikastaroak
- Loidi bekaren irabazlea.
- Zaborrontzi berria: hondakin organikoena
- Hauteskundeei begira: Manuel Millan, EB-Berdeak alderdiko zerrendaburua.
- Iraun-ek alegazioak aurkeztu dizkio Lurralde Planari
- Chillida-Gal erakusketa

12.- *Kirolak.*

- Irun Artia: Kadete mailako nesken futbol taldea.

16.- *Gai nagusia.*

- Behobiko denden gainbehera

19.- *Bi hitzetan:* Berri laburrak

22.- *Kuttun gabinete psikopedagogikoa* Jeloskor nago! (III atala)

24.- *Eleak iruten.* Urtarrilaren 27ko greba

25.- *Lerroz leerro.* Arantxa Urretabizkaiaren 3 Mariak

26.- *Kultur Agenda*

OLAIZOLA

Inmobiliaria agentzia

Beraketa kalea, 17
20302 IRUN

TEL: 943 62 66 84 - Faxe: 943 62 65 85

Posta elektronikoa: inmolaizola@euskalnet.net

API 316

Salmenta

Alokairuak

Promozio berriak

Aholkularitza

Gazteak independentziaren bidean



“Familiaren laguntzarik gabe bizitzeko oinarritzko ezagupenak behar ditugu”. Hona hemen Irungo Udalak gazteen artean egin zuen inkestan jasozuen eskaera. Halaxe, Gazteria Arloak “Etxeko biziraupen” ikastaroak antolatu ditu.

Urtarrilean hasita martxora arte emango zaaien “master” honi esker, parte hartu duten gazteek ez dituzte amak utzitako *tupper*-ak beharko elikatu ahal izateko, aitarien laguntza komuneko tanga konpontzeko edota jostorratza tresna ezezaguna dutelako botoirik gabe-

ko praktikak jantzi beharko. Oinarritzko ezagupenak irakasteko programa bost alorretan banatu da: bricolajea, osasuna etxean, arropa, etxeko ekonomia eta sukaldaritzak.

Bada, jarduera original honen lehenbiziko ikasgaiaren lekuko izan zen Irunero, sukaldaritzari



Goian, Urkiri sukaldaria salda nola prestatu irakasten. Eskuinean, bi gazte oilaskoa zatitzen.



buruzkoarena, hain zuzen.

Ospitale Zaharrean formaziorako erabiltzen diren sukaldeetan 15 laguneko taldetxoa bildu zen. “Nola antolatzen zarete jateko?” Horixe Urkiri irakaslearen lehenengo galdera. Gehienek gurasoen etxean egiten dituztela otorduak erantzuten dute. “Bada, hau ez da teoria klasea; beraz, denak lanera!”, esan die sukaldariak, maukak bil ditzatela eskatuz. “Helburua oinarritzkoena ikastea da, kontuan harturik sanoa eta merkea behar duela izan; alegia, gure aiton-amonen ohiturak jarraituta”.

Estraineko saioan oilaskoa baratxuriekin, salda eta dilistak prestatzea da erronka. Bada, oilaskoa zatitzeari ekin diote hasiberriek. Anderrek ez du sekula oilasko gordina ukitu. Gogoz aritu da artikulazioen bila, izterrak mozteko. “Zailena bularrak ateratzeko lana gertatu zait”. Gurasoekin bizi denez, ezer gutxi egiten du etxeko sukaldean. “Nire kabuz bizitzera joaten naizenerako, hemen ikasitakoa oso baliagarria izan da”.

Oilasko gordina ukitzea sekulako nazka ematen diola aitortzen duen neska azkenean hegoa ebatztera deliberatu da.

Platerak prestatzeko tipulak, azenarioak eta porruak zatitzeko txanda dute jarraian. Bitartean irakasleak hainbat aholku eta informazio ematen die. “Oilaskoa osorik merkeagoa da atalka erostea baino, eta dena erabil daiteke, baita hezurdura ere”. “Ba al dakizue zenbat jan behar dugun? –galdegiten die jarraian–. Bada, ahur bete proteina”.

Itziarrek etxean lagutzen du. “Lagunarteko afariak prestatzeko orduan, berriz, beti berberrek sukaldatzen dute. Horrelako ikastaro baten bila ibili naiz, ez lanbide prestakuntza helburu duena, baizik eta oinarritzkoena ikastea”.

Oihanari amak proposatu zion etxeko biziraupen tailerretan parte hartzea, “etxean ez baitakit oso jaki sinpleak prestatzen besterik; hala nola, makarroiak, tortilla edo entsalada. Hemendik aurrera gustua hartzea espero dut!”. Horixe irakaslearen proposamena lapikoen munduari beldurra galtzeko: sukaldean gozatzea. “Itzal eza zue telebista eta eman ordu erdia eguneroko sukaldean!”.

Saiorako osagaiak gertu dituzte. Lapikoak irakiten ari dira. Datorren asteko ikasgaia postreari buruz izango dela iragarri die Urkirik.

Loidi bekaren irabazleak mugaz gaineko portuges pasa aztertuko du

Rosa Arburua bidasoarraren *Euskal Herriko mugaz gaineko portuges pasan* izenburuko proiektuak 2010eko Irungo Udalaren Loidi beka irabazi du.

Aurkezpenean Kultura eta Euskara zinegotziak, Fernando San Martinek, bekaren helburua adopzioz eta bihotzez bidasoarra zen Jose Antonio Loidi itzaltsuari omenaldia egitea dela azaldu zuen. “Bere erudari jarraiki, hainbat esparrutan ikerketa egiten laguntzen da. Era berean, euskarazko zientzia-ikerketa handitzea ere bada asmoa, hain maite zuen hizkuntza izaki”, esan zuen.

Portuges pasa

Rosa Arburua Filosofian eta Hezkuntza Zientzietan doktora da eta Berako institutuan irakasle dihardu. Bidasoako, Bortzirietako eta Baztango kontrabandoaren gaia sakonki jorratua du aurren argitaratuko den *Gau lana: Kontrabandoa* izenburuko ikerketan. Loidi bekari esker, 60ko hamarka-



Rosa Arburua irabazlea, Fernando San Martín Kultura zinegotzia eta Iban Eguzkiza Euskara Arloko zuzendaria aurkezpenean.

dan Hondarribitik Baztanera bitartean eman zen portugesen pasa aztertuko du zehazki. “Exodo izugarria gertatu zen. Beldurrik gabe esan daiteke 500.000 portugesek muga guretik igaro zutela ilegalki”, azaldu zuen Rosak.

Salazar diktadorearen garaian erbesteratzearen atzean arrazoi ekonomikoak nahiz politikoak zeuden. “Alde batetik, Portugalen urritasun handia jasaten ari ziren. Frantziako industriak, berriz, langileak behar zituen. Bestetik, gazteek ez zuten Afrikako gerra kolonialetara soldadu joan nahi”. Gainera, pasaportea lortzeko

aurkeztu beharreko dokumentuetako batzuk lortzea oso zaila zelako askok muga legez kanpo igarotzea erabakitzen zuten.

Muga pasatzeko bi modu zue dela zehaztu zuen ikertzaileak: “Espainia eta Portugal arteko mugalariek honaino ekartzen zituzten, edo hemengoak Portugaleraino joaten ziren haien bila. Baziren soilik hemengo muga pasatzeko lana ere egiten zutenak”.

Bekaren zenbatekoa 9.000 eurokoa da. Urte amaierarako ikerketa burutua beharko du egileak.

Materia organikoaren bilketa martxan da Txingudin

Txingudiko Zerbitzuek bosgarren edukiontzia ezartzeko kanpainaren lehen fasea abiarazi dute Irungo Antzaran, San Miguel eta Pinudi auzoetan eta Hondarribiko Amute eta Puntalekoan. Hemendik aurrera, auzo horietan bizi diren eta kozinatu gabeko hondakin organiko begetala bereizi nahi duten bizilagunek Txingudiko giltza ekologikoa lortu ahal izango dute. Giltza horrek edukiontzi marroi berria irekitzen du.

Kanpaina 4.609 etxe-abonaturi zuzendua dago; hots, 12.000 biztanle ingururi, Mankomunitatearen %16ari. Hartara, 50 edukiontzi berri jarri dituzte.

Kanpaina otsailaren 4an hasi zen eta hilaren 25ean amaituko da. Helburua %30-35eko parte-hartzea lortzea da, eta astean 8 tona materia organiko jasotzea edukiontzi berrian.

Zer bota daiteke edukiontzi marroi berrian?

Edukiontzi berrian kozinatu gabe dauden jatorri begetaleko hondakinak baino ez daiteke bota: erre gabeko sagar baten azala, adibidez. Hondakin horiek edukiontzi marroian zuzenean bota daitezke, poltsarik gabe edo konpostagarria den poltsa batean sartuta. Inolaz ere ezin dira plastikozko poltsa batean bota, horiek ez baitira deskonposatzen eta lortutako konposta kutsatzen baitute.

Kanpainan parte hartu nahi izanez gero, beharrezkoak izango dira kuboa, poltsa konpostagarriak eta Txingudiko Zerbitzuek luzatuko dieten giltza. Auzootako bizilagunek diptiko bat jasoko dute, postontzian materiala nola jaso azalduz.



Hondakinak zuzenean bota daitezke edukiontzira, edo konpostagarriak diren poltsetan.

Zergatik du giltza edukiontzi berriak?

Konpostak kalitate ona izan dezan eta baratza eta lorategietan erabili ahal izateko, jasotako hondakinak ahalik eta puruen izatea nahitaezkoa da. Horregatik, bilketa hori nahi duten familiekin beste inorekin ez da lan egingo, aldez aurretik bilera batean beharrezko informazioa jaso baitute. Edukiontziak giltza behar du, ongi informatuta eta gogoz arituko diren familiek bakarrik parte har dezaten.

Manuel Millan, EB-Berdeen Irungo Udalerako zerrenda burua.

“Udal gobernuak egindako gestioaren balantzea txarra da, Irunen langabezia handia dagoelako”

1995. urtean izan zen Irungo Udalean zinegotzi estrainezkoz. Orduetik hona 12 urte eman ditu (1999-2003 agintealdian izan ezik) EB-Berdeen lerroetan udaletxean. Maiatzeko hauteskundeetan berriro zerrendaburu izango da.

- Azken lau urteotan udal gobernuak egindako kudeaketaz zein da zure iritzia?

Zenbait argi nabarmenduko nituzke: Hiri Antolamenduko Plan Orokorren berrikusketan alderdi desarrollistak murriztu direla, udal gobernuaren irizpide aldaketari esker; Skate Parkearen eraikuntza, eta Kultura Aholku Batzordearen sorrera. Haatik, langabezia tasan Irun Gipuzkoako buru delako balantzea txarra da. Gainera, Udala enplegu prekarioaren bultzatzailea izan da, obra nahiz zerbitzuen kontratazioaren bitartez.

Etxebizitza publikoari dagokionez, agintealdi urria izan da: promozio bakoitza gauzatzeak hamarkada bat edo gehiago ematen du, eta alokairu publikoko etxebizitzaren arrastorik ez.



Mugikortasunak ez du hobera egiten eta ekipamenduen defizita mantentzen da; adibidez, haurtzaindegi plazak, udal liburutegiak, parkeak, apakalekuak, eta abar.

- Zein izan da EB-Berdeek ekarpena?

Ezker Batua-Berdeek udal kudeaketa soziala eta iraunkorra izan dadin saiatu da. Kontuan hartuta oposizioan gaudela eta gu-

txiengoan, lan ona egin dugula uste dut. Gure proposamen asko gauzatu ez badira ere, erabakietan eragin dugu. Ez dugu lortu jarduera ekonomikoetarako lurraren kudeaketa hobea, ez eta Ficobaren funtzionamendua aldatzea, ezta etxebizitza publikoaren kudeaketa azkarragoa egiterik edo Plaiaundiko instalazioak lekualdatzerik, ez eta autobusen maiztasuna handituz



eta bidegorri praktikoak eginez mugikortasuna hobetzerik, ez eta telefono-antenen uhin kutsatzaileak kontrolatzerik, ez eta hondakinen tramenduari beste alternatibak bilatzerik ere... Hala eta guztiz ere, Planeamendu Batzordea nahiz Kulturakoa sortzeko orduan erabakigarriak izan gara, baita autobus geltokiaren kokalekua erabakitzean eta espekulazioa saihestuz lokal komertzialak etxebizitza bihurtzeko beharrezkoa zen ordenantza sortzean ere. Halaber, besteak beste, Olaberria bere hartan mantentzean eta telefonia mugikorreko enpresentzat tasak ezartzean ere EB-Berdeek iritzirik garrantzirik izan du.

- Zein dira datorren agintealdirako zuen programa politikoaren ardatzak?
Justizia soziala eta ingurunearen defentsa.

Irunek gai izan behar du modu iraunkorrean hazteko. Hartara, lur gutxiago erabili behar da eta, aldi berean, langabezia murriztu eta etxebizitza publikoa nahiz alokairuko eskuragarriago egin. Aipatu helburua erdieste-ko, hona beste zenbait proposamen: Ingurunea babestu, Txingudiko Plan Berezia garatu, eta hala Ibarlarako nola

Olaberriako Plan Bereziak landu; irritati-telefonariaren uhin kutsatzaileen emisioak arautu, zarata kontrolatu eta energia-eraginkortasun plana garatu.

Beste hainbat konturen artean, hona hemen nabarmentzekoak:

- Mugikortasuna hobetu
- Haurtzaindegi-plaza publiko kopuru nahikoa sortu.
- Espazioari dagokionez, liburutegi publiko duina
- Oxinbiribilen parke handia eraiki
- Kirol instalazio gehiago sortu
- Aparkaleku gehiago

Hori guztia, emakumeen, etorkinen eta ezgaitasunen bat dutenen gizarte-bazterketa egoerak murriztuta. Azken hauei hiriko edozein bazterretara irisgarritasuna hobetu behar zaie.



F / O / T / O / K / O / P

FOTOKOPIAK KOLORETAN ETA TXURI BELTZEAN, PLANOEN FOTOKOPIAK,
ENKUADERNAKETAK, PLASTIFIKAZIOAK, ORDENGAILUZKO LANAK,
KAMISETAK, FAX ZERBITZUA, PAPERDENDA,...

Tel./Fax: 943 63 22 11

E-mail: fotokop@telefonica.net

Foruen kalea, 4 - 20302 IRUN

Iraun taldeak Lurralde Planari 4.342 alegazio aurkeztu dizkio

Iraun herritar taldea sortu zen Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Diputazioak landu duten Donostialdea-Bidasoa Zatikako Lurralde Planak (ZLP) Irunen eraikitzea aurreikusten dituen azpiegitura zenbait geldiarazteko. Zehatzago, Meaka eta Olaberria auzoetan barrena eraikiko litzatekeen 6 erraiko autobide berria eta Olaberriko plataforma logistikoa eta zentral termikoa egiteko egistasmoak bertan behera utz ditzatela eskatzen du.

Iraunek argudiatu du “inpaktu izugarria duen autobide berria ezin justifikatu daitekeela hurrengo hamarkadetarako aurreikusten den trafiko bolumenaren ikuspegitik”. Olaberriko esku-hartzeari dagokionez “nekazal bailara honen suntsiketa” ekarriko lukeela iritzi dio. Iraunek azken bi hilabeteotan herritarrak informatzeko eta sentiberatasuna areagozeko lana egin du. Planari 4.342 alegazio aurkeztu dizkio. “Horrez gain, badakigu herritar askok alegazioak aurketu dituztela zuzenean”. Azkenik, herri taldearen ekimenak Irun eta Hondarribiko hainbat arlotako jende ezagunaren babesa eta atxekimendua bildu du.



Irungo Udalak ere alegatu du

Irungo Udalak ere alegazioak aurkeztu ditu, Planaren zenbait aurreikuspen Udalak dagoeneko egin dituenekin bat ez datozelako. Besteak beste, autobide berria, Olaberriko plataforma logistikoa, trenbidearen eremua jarduera ekonomiko-etarako eta Zubietakoa etxebizitzetarako soilik erreserbatzea.



Zer egin behar da Gipuzkoa TB Txingudi LTDz ikusi ahal izateko?

29. KANALEAN sintonizatu. Kanal horretan seinalerik jasotzen ez baduzu, jar zaitez harremanetan antena instalatzailearen batekin.


Chillida eta Menchu Gal, elkarrekin erakusketa batean

Menchu Galek pintura eta kolorea izan zituen bere obren ardatz. Eduardo Chillidak, berriz, zuri-beltzeko unibertsoko eskultura. Bizitzan adiskidetasun harremanak lotu zituen bi artista bikain hauek bat egin dute Irungo Menchu Gal aretoan apailatutako erakusketan. Baina zer dute amankomunean ekarri diren lanek? Bada, Chillidaren eta Galen lan ezezagunenak direla, erreferentziatzko diziplinetakoak ez direlako, hain zuzen.

Alde batetik, Chillida-Lekuk bere lan grafikoko 20 aleko bilduma bat utzi du, 70eko eta 80ko hamarkadetakoak. Teknika aldetik, kalkografiak, serigrafiak, xilografiak eta litografiak dira ikusgai. Horiekin batera, pintore irundarraren hamazazpi marrazki hautatu dira; horietan, Chillida legez, zuri-beltzera mugatzen da. Menchuren prestakuntza garaikoak dira batzuk; besteak, olio edo akuarelarako zirriborroak, 40ko eta 50eko hamarkadetakoak.

Jose Antonio Santano Irungo alkatearen esaneko, “lehen aldiz irundara ez den beste artista bat gonbidatu da aretora. Ziklo berri hau irekitzeko ez zegoen aukera hoberik Eduardo Chillidarena baino, XX. mendeko artista garrantzitsuenetakoa izaki”.

Artistaren seme Luis Chillidak adierazi zuen aitak ez zuela dena eskulturan erreproduzitu nahi izan, “baina mundu grafikoan lanak ezagutarazteko bidea aurkitu



Goian, Luis Chillida Fernando San Martinekin. Behean ezkerrean, Chillidaren grabatu bat, eta ezkerrean, Menchu Galen marrazki bat.

zuten. Eskulturetan bezala, irudi hauen artean bada elkarren arteko lotura”. Grabatuekin batera, hauek egiteko erabilitako xafiak eta Chillidaren argazkiak erakusten dira.

Erakusketa uztailaren 3ra arte zabalik egongo da.

Irun Artiako neskak, goruntz ziztu bizian



Duela bi urte Irun Artia Kirol Elkartea sortu zen, emakumezkoen futbolari emana, sortu ere. Ilusioz eta gogoz egindako lanaren emaitzak ezin hobeak izan dira orain arte, kadete mailako Gipuzkoako Txapeldunen ligan sartu dira eta.

Futbola dastatu zuten eta futbolarik harrapatu zituen, baina Irunen kadete mailako talderik ez zegoenez, ezin jokatu. Duela bi urte sortutako Irun Artia Kirol Elkarteari esker, ordea, badute non jardun euren afiziorik behinenean. Hamalau eta hambost urte bitarteko 21 neskek osatzen dute taldea. Guztiak ere ilusioz beterik, Artian dute entrenatzeko zelaia. Jada bilatu dituzte aurtengo uztaren emaitza politik: eskualdeko irabazle izan dira, 12 partidutatik 12ak irabazi baitituzte. Beraz, bigarren fasera pasatuz direnez eskualdeko orde-

kariak dira emakumezkoen kadete mailako Gipuzkoako futbol ligan. Txapeldunen fase horretan maila jasoagoa bada ere, jokalariek ez dute adorea falta eta sailkapen ona lor dezaketelakoan daude. Aurrean izango dituzte beste eskualdeetako ordezkari indartsuak: Añorga, Hernani, Beasain, Arrasate, Azkoitia, Mutriku eta Lezokoak.

Emakumezkoen futbola bultzatu

Taldeko 2. entrenatzaile den Roberto Diez, *Pope*, Irun Artia Elkartearen sortzaileetako bat da. “Taldea



2010-2011 sasoiko kadete taldea.

sortzeko ekimena emakumezkoen futbolean aritzen ziren entrenatzaile zenbaitena izan zen. Kirol honi maila handiagoa ematea genuen helburu, zeren eta uste baikenuen merezi zuen garrantzia ez zitzaiola ematen. Hartara, eskarmentuko jendea behar genuen, mundu honen inguruko ezagutza guztia ekar zezakeena”. Horietako bat Elkarteko lehendakariordea da, Vicente Arraras. Dunboan hasi zen; ondoren, Real Unionen eskumeneko izatera pasa zen. “Kategoria honetako neskei jokatzeke aukera emateko sortu genuen taldea. Gure nahia Irungo emakumezkoen futbola batzea da”. Zeregin horretan, Irun Artiakoak bateginik eta giro ezin hobean ari dira.

Bi jokalaria, Txuri-Urdinekin

Taldea oso harro sentitzen da, lortutako emaitzengatik ez ezik, Realak Irun Artiaren lerroetako bi neska aurre-selektionatu dituelako.

Txuri-Urdinek Leire Baños eta Naroa Sanchez kalitate handiko jokalariai aukeratu dituzte zenbait egunez Donostian entrena dezaten. Dagoeneko partidu bat jokatu dute donostiarrekin.

Entrenatzaileak

Valentin Garcia, Juanan Rodriguez, Roberto Diez

Jokalariai

Maria Escobar
Marina Hernandez
Naiara Tel
Maialen Cortajarena
Maialen Perez
Arrate Morales
Samantha Bermejo
Maddalen Gorbea
Sara Baizan
Leire Baños
Naroa Sanchez
Monica Jimenez
Natalia Rodriguez
Nerea Hernandez
Ohiane Herrero
Almudena Viedma
Andrea Manzano
Andrea Navarro
Leire Adelarpe
Leire Muñoz
Saioa Peciña

irunero aldizkaria non eskura daiteke?

ANAKA

ANAKAKO KASINOA
KUTXA
BURDINDEGIA (Kutxaren
aldamenean)
ANAKAKO AUZO ELKARTEA
BIDASOAKO OSPITALEA

BELASKOENEA:

TXIMISTA TALDEA (Parrokia)
BELASKOENeko AUZO
ELKARTEA

ARBES eta PALMERA-MON- TERO

VICTORIA TABERNA
(Altzukaitz)
LA AGRICOLA
PALMERAKO HAINBAT
KAFETEGI-TABERNATAN

BEHOBIA eta ARTIA

HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIA-
LA
TRINKETE TABERNA (M^a
Juncal Labandibar kalea)
AZKEN PORTU KIROLDEGIA
KUTTUNA HAUR ESKOLA
(Artiako Caro Baroja plaza)

ERDIALDEA

HERRI JAKINTZA (Nafarroa
hiribidea)
BRASIL gozo-denda
ELKAR liburu-denda
OSKARBI Liburudenda
EUSKADIKO KUTXA (Kolon)
KUTXA (Kolon)
JUBILATUEN ETXEA (Luis
Mariano)
VIRGINIA kafetegia
SIRIMIRI taberna
KUTXA (Gipuzkoa hiribidea)
KIOSKO 33 (Argentinari
Errepublikari)
HAZ-SAC

FOTOKOP (Foruen karrika)
GAZTE INFORMAZIO BULE-
GOA (Foruen karrika)
EUSKARA Arloa (Foruen karri-
ka)
ACUBI (Foruen karrika)
IZOKINAREN KOFRADIA
(Kale Nagusia)
ARANO taberna
MANOLO taberna
SARGIA taberna
AEK Euskaltegia
ARTXIBOA eta LIBURUTEGIA
MENDIBILGO MUSIKA
KONTSERBATORIOA
ARTALEKU KIROLDEGIA

DUNBOA

TOMA PAN Y MOJA (S.
Pedro)
OSASUN ZENTROA
KUTXA (Nafarroa hiribidea)
ERKA (Salvador Etxeandia)
ALDABE paper-denda

LAPITZE

ANBULATORIOA
AMAIA KZ eta Pio XIIko kios-
koa.
OGIBERRI (Serapio Mujika)
EUSKADIKO KUTXA (S.
Mujika)

MEAKA

MEAKAKO Bizilagunen
Elkartea
ERROTAZAR
OLA Sagardotegia

OLABERRIA

ESTEBENEA taberna
LABEKO ETXEA jatetxea

ALDE ZAHARRA

UDAL EUSKALTEGIA
ALDE ZAHARREKO BIZILA-

GUNEN ELKARTEA

(Larretxipi)
EKT (Larretxipi, 12)
KURPIL KIROLAK (Peña k.)
HAZIA taberna (Peña kalea)
ESKINA taberna
EUSKADIKO KUTXA
(Urdanibia)
KULTURA Arloa
(Ospitale Zaharra)

ANTZARAN

NEKANE paper-denda
Lekaenea

SAN MIGEL

KOLON burdindegia
(Hondarribia kalea)
KUTXA (Zubiaurre)
EUSKADIKO KUTXA
(Zubiaurre)
SAN MIGELEKO AUZO
ELKARTEA (Luis de Urantz,
24)
ATREZZO (Geltoki kalea)

SANTIAGO

AGUIRRE okindegia (Junkal)
CANON (Santiago k.)
SANTIAGO AUZO ELKARTEA
BIKOTE (Erromes plaza)

URDANIBIA

TANDEM kafetegia

KATEA

KATEKO AUZO ELKARTEA

LARREAUNDI

OKINDEGIA (Eguzkitzaldea k.)
AUZO ELKARTEA
(Iñigo Loiolako)
LARRARTE Harategia
(Eguzkitzaldea, 17).



Itzal 1

itzal1@hotmail.com

637 822 432

Behobiko saltokietan kolore alaiak nagusi dira, bizi duten egoera ekonomikoa, berriz, grisa. Denda gehienak bezerorik gabe topatu ditugu, eta dendariak, eskuak poltsikotan dituztela. Tabakoa saltzeko baldintzen gogortzea, alkoholaren gaineko zergen handitzea eta krisiak berak gainbehera ekarri du.



Behobiko denden gainbehera

Mugaren xarmak erakarrira bidaian geldiadi bat egiten duten turistak edo alkoholaren nahiz tabakoaren prezio merkeak probextera egun pasa egitera Behobira etortzen diren frantziarrak dira mugako dendetako erosleen profil nagusia. Dendako merkantziak kalera ateratzeko ohiturak giro alai ematen dio inguruari; baina horietako gehienetan, barruan dauden pertsona bakarrak langileak dira. Urtarrila hilabete txarra dela kontuan izan arren, isiltasuna nagusi da. - Zer dira gehien saltzen dena? - Ez da jada ezer saltzen!, erantzun digu bazar bateko dendariak etsipenez. Denda batzuetan langileak mantendu dituzte, kaleratu ahal iza-

teko ere kalte-ordainerako iristen ez zaielako. Batek itxi du jada. Hau basamortua da!

Krisi orokorrak kolpatu ditu, beste hainbat sektore legez. Hori ez da, ordea, gainbeheraren arrazoi bakarra. Edari-denda batean zergatietan sakondu dute. Tabakoa eta edaria izan dira tradizionalki denda hauetako lokomotorea. Duela 5 urte tabakoaren legeak dendetan saltzea debekatu zuen, tasa bat ordaindu ezean. Ordurako, ordea, irabazi txikia uzten zigun, alkoholaren eta tabakoaren zergak handitu zituztelako. Pentsa, gaur egun litroko Ricard botila batek 11,90 euro balio du, eta euro bateko irabazia uzten digu.



Dendariak estankoei begira bizi dira, bezeroak erakartzeko amu nagusia bilakatu baitira. Hala da; inguruetan topatu ditugun erosle gehienek tabako-kartoi zenbait daramate. Poltsak bete Philip Morris kartoi dauzkan bikote bat edaridendara sartu da. *Pabetik hiru hilean behin etortzen gara, Frantzia tabako honek ia halako bi balio duelako, alegia, 65 euro.* Pertsona bakoitzak gehienez ere 6 kartoi esporta ahal baditu ere, *kopurua gaintzeagatik ordaindu behar den tasa ordaintzea merezi du, argitu du.* Estanko bateko 3 langileek ez dute ia etenik. Goizeko 9etan ireki eta 20:00etan ixten da.



Ezkerrean, tabakoa erosita orotariko denda batean beste produktu bat erosi duten bi lagun frantziar.

Goian, souvenirren saski-naskia.

Bezero gehienek baimendutako kopuru handiena erosten dutela esan digute. Zigarroak biltzeko tabako pakete handienak ere eramaten dituzte frantsesek, dirua aurrezteko xedez. Zergak izugarri handitu arren, Philip Morris marka iparraldean baino %50 merkeago da; Lucky, esaterako, %20. *Frantsesek legeak ezarritako mugak zorrotz errespetatzen dituzte. Hala egiten ez duenak badaki Poliziak sarri jartzen dituen kontrol mugikorretan harrapa dezakeela.*

Estankoan Behobia Irun guztiarentzat ona dela diote, bezeroak erakartzeko pizgarri lana egi-



higer bidea, 6-20280 hondarribia, gipuzkoa
t(34) 943 64 27 12
arrokaberrri@arrokaberrri.com
www.arrokaberrri.com



ten duelako.

Tabakoa erosita gai anitzeko dendara sartu den lagun bikote baten ibilbidea jarraitu dugu. Oraingoan estankoaren amu-lanarenak arrakasta izan du. Handik hurbil, souvenir eta erretzaileentzako produktuen saltoki batean gizon batek zigarroak biltzeko papera erosi du. *Bai, horixe gaur egun gehien saltzen dugun gaietako bat*, azaldu du dendariak. Espainiak futbol munduko kopa irabazi zuenetik ikur espainola daraman gauza oro modan dagoela ere baieztatu du. Halaber, euskal ikurretako *souvenirrak* betidanik frantsesen gustukoak izan dira. *Kanpotik datorrenari berdin zaio lauburu bat edo flamenko-dantzari panpina eroatea.*

Halaxe, Espainiako banderen aldameneari Ezpeletako piperra marraztua duten platerak



daude, edo banderilla gorri-horiko zezenak lauburudun belarritakoekin nahas-mahasean, irudi surrealistik osatuz. Halakoa da Behobia, berezia, beti estatuen arteko gorabeheren eta mugak sortzen duen liluraren menpe. Oraingoan ere aterako al da itolarritik?

gesAR
gestoria ARANA
corretoría de seguros

asesoría aholkularitza
integral integrala
ingeniería injenieritza
seguros aseguruak

Gipuzkoa hiribidea, 26.
IRUN
Tel: 943 666 050
Fax: 943 618 075
gestoria.arana@garana.com

Irungo Argazkilaritza Elkarteak lokal berria dauka Izaga kalean

Irungo Argazkilaritza Elkarteak (IAE) Foru kaleko sotoan dagoen lokal zaharra utzi eta Izaga kaleko berria estreinatu du, hain zuzen lehenago Kemen Dantza Taldeak erabiltzen zuena. Irungo Udalak, lokala egokitu eta berriztatu ondoren, laga egin dio Elkarteari. Lan horiek egin dituztenak gizarteratzeko eta lanbideratzeko enpresak izan dira.

Gerardo Garcia IAEko presidentek berri oso pozgarria dela adierazi du. “Lehenago egoitza zaharra eta txikia zen, eta gainera sarrera de-serosokoa. Orain 40 m²tik 100era pasa gara. Horrek erakusketak antolatzea ahalbideratu digu, esaterako. Bestetik, kalearen mailan kokaturik egoteak abantailak ditu, jendearen begi bistakoa denez erakargarriagoa baita”. 120 kideko Elkarte honek egoitza osatzeko lan-material gehiago erostea aurreikusit du.



Irungo sukaldariak Teruelen, neguko boilur edo trufaren laborea eta erabilera ezagutzeko

Euskal Herriko sukaldari talde batek, tartean irundar zenbait ere bai, Teruel bisitatu du bi egunez, lurralde horretan lantzen diren elikagaiak eta azpiegitura turistikoa ezagutzeko. Txangoa Teruelgo Diputazioak Hondarribiko Ostalaritza Elkarteari egindako gonbidapenez gauzatu da.

Ekintza interesgarrienetako bat neguko boilurra nola lantzen den bertatik bertara ikustea eta hain preziatua den onddo horren bilketan parte-hartzea izan zuten. Boilurraren eta bere laborearen inguruko hainbat jakinbide ezagutu ondoren, Mora de Rubielos herrian neguko boilurra ongailu zuen menua dastatu zuten, Teruelgo goi mailako elikagai naturalez lagunduta.



Ezkerretik eskuinera, Gaztelumendiko Felix Manso, Danakoko David Rodriguez eta Carlos Sagastizabal sukaldariak neguko boilur batekin.

Irunen langabeziak nabarmen gora egin du urtarrilean

LANGABEZIA	10eko azaroa		10eko abendua		11ko urtarrila		10-abe. / 11-urt.	
	Guztira	*Tasa	Guztira	*Tasa	Guztira	*Tasa	Ald. absol.	Ald. erlat.
Iturria: INEM								
Irun	4.553	% 14,4	4.505	% 14,3	4.776	% 15,1	271	% 6
Gipuzkoa	39.492	% 11,1	39.449	% 11	41.472	% 11,6	2.023	% 5,1
EAE	133.051	% 12,3	135.961	% 12,6	143.118	% 13,3	7.157	% 5,3

*Egailan Laneko Merkatuaren Behatokiak biztanleria aktiboa kalkulatzeko duen metodologia egokitzean oinarrituta.

2011ko lehenengo hilabetean langabeziak nabarmen egin du gora, 2010eko abenduko datuen aldean %6 handitu baita. Beraz, hautsi da aurreko hilabeetako joera positiboa, txikia bazen ere. Orain Irungo langabezia tasa %15,1era iritsi da. Euskadiko Autonomia Erkidegoan, Irunen bezala, langabetu kopuruak gora egin du urtarrilean, zehatzago, % 5,3. Dena den, Euskadiko tasa Irungoa baino txikiagoa da: %13,3. Sektorekako azterketan, aurretik enplegurik

izan ez dutenen langabetu taldea da aldaketa erlatibo handiena jasan duena, % 12,8. Ondoren industriaren sektorea izan da kalte-tuena, % 8,6 irundar gehiago lanik gabe daude eta. Zerbitzuetan (Irunen garrantzitsuena) %6an gora egin du, hots, abenduan baino 223 lagun gehiago langabezia daude eta. Urte arteko aldaketari erreparatu, deigarria gertatzen da eraikuntzak jasan duen gainbehera, sektore honetako 2010eko hasieran baino % 16,7 pertsona gehiagok ez dutelako enplegurik.

Nicolas Fernandez de Barrena, ITV

Irungo Casinoak Nicolas Fernandez de Barrena arabarra 2011ko Bizitza Guztiko Irundarra (ITV) izendatu du. Casinoak urtero pertsona bat nabarmentzen du, elkarteko kide ez dena eta irundarra ez dena, baina Irunen alde garrantzizko zerbait egin duena. 1968an, beste handizkako sozioekin batera, UNIALCO sortu zuen. 1994ko fusioaren ondoren, UVESCO taldea eratu zen, zeinaren egoitza Irunen baitago eta guztira 2.670 enplegatu baititu.



Omendua alkatearekin eta Casinoko ordezkariekin.

Batu gaitzen, arren, eta hitz egin, mintza, eta elkarri eskua eman

Brno, 2011ko otsailaren 3a, osteguna

Nola da posible Espainiako Estatuko bi alderdi handiek Euskal Autonomia Erkidegoko boterea eskuratzeko, euren diferentziak kontuan hartu gabe, bata eskuindarra bestea ezkertiarra izanik, bat egiteko inolako erreparorik ez izatea, eta euskal alderdiek, aldiz, ezin bat egin Euskal Herriak behingoz eta betiko askatasuna lor dezan, euren norabidezko diferentzia horiek ahan-tziz?

Galdera luze xamarra atera zait, eta beharbada ez da erraza ulertzen, baina galdera luze horrek sortzen duen nahasmen berbera sortzen dit barnean, euskal politikak sorra-razten didan inpotentzia ez baitut erraz ulertzen. PNV-EAJ, EA, ARALAR, AB, EZKER ABERTZA-LE ILEGALIZATUA... sigla horiek eta gehiago ditugu, eta diferentziak diferentzia, gehia-go dute batzen dituztena banan tzen ez dituztena baino: autodetermi-nazioa, independen-tzia, azken batean mun-duan gure ahots propioa entzunarazteko euskaraz, eta ez beste batzuen bozgorailu arrotzetatik. Izan ere, bakea ez baitugu helburu, ala? Gure helburuak bat egitea izan behar du, ala?

Bakea dugu bidea horretarako. Gandhi hura hartzen dut nik gidari, eta, duela urte batzuk EGUNKARIAN nire gutun batean izkiriatu nuen bezala, desobedientzia zibilaren bitar-tez herritarrek egin behar diegu bultza gure alderdi horiei guztiei, batu daitezten eta eus-kal jendartean dugun batasuna politikan ere egin dadin benetako.

Batu gaitzen, arren, eta hitz egin, mintza, eta elkarri eskua eman

Bakea dugu bidea, bai, gure helbururako. Benetan ETA juntagailuak batu ditzala Euskadi (edo Euskal Herria) eta Askatasuna hitzak, armarik gabe, su-eten garai itxaro-pentsu honetan gau-dela probestuz.

Batu gaitzen, arren, mintza, hitz egin eta elkarri eskua eman behingoz eta betiko aske izan dadin Euskal Herria eta Euskara. Eta nire bihotz min honetatik, atzerri min honetatik, amodio/desamodiozko bakardade honetatik heldu nazazue eskutik, arren, ainara zauritu hau amildegira eror ez dadin, arren.

Ainara Maya Urroz

Jeloskor nago! Inbidia dut!

Haurren arteko jelosia eta inbidia aztertzen jarraituko dugu. Guztiz normalak dira jelosia eta inbidia emozioak; kontua da era positibo edo inteligentean bideratzea. Nola lagundu horretan? Guraso gehienoi gure seme-alabak etengabe liskarretan ari direla iruditzen zaigu eta normala ote den galdetzen diogu behin eta berriro gure buruari. Hamaika galdera suertatzen zaigu: Zergatik daude beti liskarretan? Zergatik beti nahi du batak besteak duena? Nola izan daitezke gure haurrak hain desberdinak berdin hezi baditugu? Oihuka ikusten dugu maiz gure burua: "ongi konpondu, anai-arrebak zarete eta!!!!!"

Faktore askok eragiten dute haurren arteko harremanetan, baina garrantzitsuenak honako hauek ditugu:

- Lehenik eta behin, mito bat aztertzeari ekingo diogu: orokorrean badago anai-arreben artean beti ongi moldatu behar dutelako aurreiritzia. "Ongi konpondu behar duzue!!!" Azter dezagun, ordea, gehienetan ohartu gabean ateratzen zaigun agindu hori. Pentsa dezagun: nola ez dute, bada, liskarrik izango elkarren arte-



an, hainbeste denbora pasa eta hainbeste gauza konpartitu behar badute? Anai-arrebak normalean espazio mugatuetan hezten dira, etxe batean ordu asko elkarrekin pasatzen dute, gurasoen arreta konpartitu behar dute, etxeko jostailu edo tresnak erdibanatu... Ez al dira normalak liskarrak?

- Elkar banaketa edo konpartitzearen beharrak anai-arreben artean hurbiltasun sentimendua sortzen du, baina baita elkarrengandik bereizi beharraren sentimendua ere. Ondorioz, anai-arrebei uztartu beharreko bi sentimendu kontrajarri sortzen zaizkie: alde batetik, elkarren arteko dependentzia eta erantzukizun sentimendua, eta, bestetik, elkar banatzea-

ren beharrak sortzen duen autonomia eta identitate propioa gara-tzeko sentimendua. Beraz, haurren artean beti ematen da hurbildu eta urrundu beharraren arteko gatazka.

- Badirudi %50koa dela anai-arrebek elkar banatzen duten geneen batzako. Beraz, berez genetikoki %50a ezberdina dute; baina, horretaz gain, testuinguruak ere haien arteko ezberdintasunak bideratzen ditu. Lehen aipatu bezala, elkarrekiko independentzia eta afirmazioa guztiz beharrezkoa dute. Horren arabera, zaharrena arduratsua bada, beste agian ez da horrelakoa izango; zaharrenak etxetik kanpo lo egitea gustuko ez bada, besteak, bere burua



azpimarratzeko, gustura joango da beste baten etxera; lehena jale txarra bada, bigarrena jale ona ...

Hau oharkabean egiten dute. Familian bere lekua izateko eta desberdinak direla baieztatzeke egiten dute. Bide hau egitea haurren garapen positiborako ona da, nor gure identitate propioa eta berezia izatea garrantzitsua delako. Denok gara ezberdinak, eta ez badugu gure ezberdintasuna onartzen eta baloratzen, beste pertsonekin konparatuko dugu gure burua. Horrela bide okerretik goaz, konparaketak etengabeko sufrimendua baitakar.

Beraz, guraso edo helduok nola jokatzeko dugun aztertzeari ekingo diogu. Pentsa dezagun: zer rol har dezakegu helduok gure seme-alaben arteko liskarretan?

- Liskarra ondo aztertu gabe eta haurrei galdetu gabe, erruduna nor den aztertzen aritzea eta haietako baten alde egitea: Mikelek arrazoi izango du Beñatek beti gauzak kentzen dituelako; Amaia da errudun beti koska egiten duelako...

- Errua zaharrenari egotzi, bera baita eredia eman behar duena; edo txikiari errua egotzi beti, bazterrak nahasten dituelako...

- Biak baztertu edo zigortu, kokoteraino gaituztelako.

Baina, gai ote al gara haurren arteko borroka batean

nor hasi den jakiteko? Inporta al du benetan? Haurrek bataren edo bestearen alde egin dezagula eskatzen digute, bestea zigor dezagula, garaile eta ondo sentitzeko. Baina... hori al da konponbidea?

Denok ikusten dugu gure burua adibide hauetako batekin edo bestekin identifikatua, eta horrek estresez betetako bizimodu bat sortzen digu. Gatazkak konpontzeko goian aipatutako bideak erabiltzen baditugu, liskarrak areagotzen ditugu haurren sentimenduak negatibo bilakatuz. Gatazkak normaltzat hartzen baditugu eta haiekin bizitzen irakasten badiegu, gatazka kopurua txikiagotzea lortuko dugu. Beti egongo dira gatazkak, baina beren kabuz konpontzen ikasi behar dute.

Zein da helduaren papera, orduan?

- Gatazkak normalak direla sentitu eta onartu.

- Konponbiderik ez dagoela ikustean, esku hartu: zer gertatu den galdetu eta haien emozioak banan-banan kanporatzen lagundu.

- Haur bakoitzak gaizki jokatu izanaren ardura onar dezan saiatu. "Mikelek gaizki jokatu duela diozu, baina zuk zerbait gaizki egin al duzu?"

Gogoratu ez dugula haurra errudun egin behar, ez dugula gaiztoa dela sentiarazi behar. Haurrak errudun sen-

timendua sentitu behar du, baina bere izatea ezeztatu gabe: "gaizki egin dut eta errudun sentitzen naiz"; baina errua azaleratu ahala konpontzen saiatzen hasten gara. Horrela, pertsona arduratsuak izaten lagunduko diegu: gaizki egin duzu, ardura hartu eta konpondu.

- Haurrek konponbidea aurkitzen ez badute, guk proposamenak egin ditzakegu, baina inposatu gabe.

- Haurren izaera propioa onartu eta ezberdintasunak baloratu, konparaketak saihestuz

Harremana ona edo txarra izan, bizitza osorako harremana da. Handitzen garenean, elkarren arteko harremanaren kalitatea ez da haurtzaroan izan ditugun gatazka kopuruaren arabera neurtzen. Harremanaren kalitatea aipatutako faktore anitzen menpe dago. Hala ere, badago berebiziko garrantzia duen faktore bat: hurbiltasun fisiko eta emozionala; hau da, haurrak elkarrekin bizi eta eraikitako harreman emozionala, edo batak bestearen bizi emozionalean izan duen eragina. Beraz, zaila izan arren, utz diezaigun gure haurrei elkar bizitzeko, bai maitasunean bai eta gatazketan ere. Ondo izan!!

**KUTTUN AHOLKULARITZA
PSIKOPEDAGOGIKOA**

kuttun@kuttun.net

Urtarrilaren 27an Greba Orokorra deitu du gehiengo sindikalak Hegoaldean. Goizeko 8:30ean abiatu naiz Hendaiatik Irunera, Kolon etorbidea helmuga. Goizeko 10:30ean idazten ari naiz

Urtarrilaren 27koa

ARGIA aldizkariko langileok greba egitea erabaki dugu asanbladan. Administrazio, sustapen nahiz kazetaritza sailekoak. Gehiengo osoz baietza eman diogu euskal sindikatuen gehiengoaren deialdiari. Kazetariok, haatik, grebaren jarraipena egitea erabaki dugu, jarraipenaren berri <http://www.argia.com> gunean emanez. Interneteko

kazetariak lantegitik bertatik ari diren bitartean, paperean dihardugunok tokian tokiko berriak igorri ditugu. Zenbait kolaboratzailearen laguntza ere izan dugu.

Hona laburrean idatzia, Kolon ibilbidea ibili ostean:

– Merkataritza guneak: *Txingudi* eta *Mendibil* sal-toki-guneak irekita daude. Komertzio guztia irekia dago, oro har. Koloneko Eroski itxita dago –horra salbuespena– goizeko 9:00etan. Beste komertzioak, gehienak, irekita daude. Tabernak, arropa eta oinetako dendak, irekiak.

– Bankuak eta kutxak: irekiak denak.

– Ikastetxeak: Bidasoa Lanbide Eskola eta Pio Baroja (DBH), itxita. La Salle eskolan ikasle eta irakasleak ari dira.

– Ospitaleko laborategiko langile batzuek greba egin dute. Eskualdeko ospitalean eta anbulategietan greba egin dute zenbait arlotan. Gutxieneko zerbitzuak tarteko, normaltasuna da nagusi.

9:30ean autoen karabana pasa da Kolonen barrena: LABekoak dira. ELAkoak Zabaltza plazan eskuko orriak banatzen ari dira. LABekoek bat egin dute eurekin. Donostiako manifestazio nagu-



sira abiatzekotan daude. LABeko Ikerren eta ELAko Xabierren balorazioak jaso ditut joan aurretik: “Aurreko bietan baino eragin gehiago izaten ari da gaurko greba Irunen”.

Niretzat, kazetari gisa, esperientzia berria izan da. Bestelako kazetaritza molde bat jorratzen ari naizela sentitu

dut, ez-ohikoa nire jardunean. *Iruneroko* lokaletik pasa naiz. Gipuzkoa Telebista Txingudiko kazetariak grebaren segimendua egitera irten dira. Mikel *tokayoa* agurtu dut, tripodea sorbaldan daramala.

Ana lankidearekin gelditu naiz. Greba eta krisia izan ditugu mintzagaiak. Krisia oro har, krisia gure ingurumarian.

Aspaldiko gogoeta berri du: “10-15 urteko ekonomia aldi oparoaren ondoren (Bibliako behi gizenen aldia) aldi meharra heldu zaigu (behi argalen aldia). Eta ez da heldu –hasieran batzuek zabaldu nahi bezala– “bi urteko paseko kontu” gisa, berriz ere, lehengo *bonantza* aldira itzultzeko. Ez, ez, ez... Krisialdia heldu zen/da luzaz eta bertan gelditzeko”.

Hirugarren greba deialdia izan da urte batean Hegoaldean. Greba deialdien eraginak eta protestak *in crescendo* doaz.

PS: CCOOk eta UGTek pentsioen erreforma lege akordioa sinatu(ko) dute patronala eta Espainiako Gobernuarekin otsailaren 2an. Agian, hau ez da Espainia. Agian –zuberotarren gisara, agian!–.

MIKEL ASURMENDI

Bidasoako literatur zaleak, Hondarribitik dator emaria: *3 Mariak* du izenburu. Arantxa Urretabizkaia da emalea. Loreak itxuraldatzen doazen antzo, hala bilakatzen hiru *marien* izaerak.

Zahartzaroarekiko begirunez

T*xuri, Gorri eta Handi*: hirurak Maria. Emakumezkoen nola gizonezkoen izena da Maria: Maria Jesus edo Jesus Maria, kasu. Gure gizarte tradizional kristau edo katolikoaren adierazgarri.

3 Mariak nobelaren ezaugarrietakoa eta gure iraganaren adierazle da Maria. *Txuri, Gorri eta Handi*, berriz, izengoitiak izaki. Gure iza-tearen –eta tribuaren– adierazleak, gure jendarte hierarkizatuaren deituren ezaugarri.

Horiek idazleak eraiki duen istorioaren ezaugarri bi baino ez dira, hiru pertsonaien bitartez eleberriz jostunak eraiki duen mundua. Fikziozkoa da, bistan da. Fikzioa, baina, errealitate helezina agertzeko berebizikoa izaten da. Premisa hori kontuan harturik, antzeko lana izaten da jostunarena nola eleberrigilearena.

Betaurrekoak hartu ditut –jostunaren modura– eta hitzezko txatal batzuk josten saiatu naiz:

1. *3 Mariak*, nerabezaroa elkarrekin bizi eta osatu zuten hiru pertsonen bilakabidearen lekukotasun bizia da. Pertsonon izaera norberak bizi duen errealitatearen –denboraren eta espazioaren– arabera itxuraldatzen doala.

2. Zahartzaroan sartu berri diren hiru pertsonen istorioa den aldetik, protagonistek iraganaren arrastoak gogoan eta larruan dituztela, hiru nortasunen –osagarriren– bidez laketuko li-



Liburua: *3 Mariak*
Egilea: Arantxa Urretabizkaia
Argitaletxea: Erein

tzaiokeen zahartzaroa islatu du eleberrigileak.

3. Gizarte hierarkizatuaren moldeak apurtu beharra iradoki digu Urretabizkaia. Zahartzaroa ez dela hilduraren sinonimoa diosku.

4. Izan orok izena dauka. Hitzek badute munta, hots. Modu inplizitu edo esplizitu batez –*Txurik Gorri*ren lengoaiatz egiten duen moduan– Arantxa Urretabizkaia idazteko molde bat hautatu du kontzienteki.

5. *3 Mariak* zahartzaroari begira ondutako iradokizuna da. Ele sotilen aukera egin du –*Txuri* narratzaileak– idazleak.

Ahalik eta elerik errazen eta errealen erabiliz –edo josiz–.

6. Kontakizunak tentsio puntu batez egiten du aitzina, misteriozko ehun edo adur batez iraurarazi du jostun egileak: Hiru Mariak Madrilen biltzen diren unera bitarte lehenik, eta enkontru harrez geroztik zabaltzen diren itxaropenek –eta aukerek– eusten diote tentsioari eta misterioari.

7. Literatura hainbat osagaiz ontzen da, osagaiak atontzeko moduak hamaika izaki. Gustuak gustu, *3 Mariak* platerak merezi du dastatzea. Edo bestela esanda, probatzea –mus-tutzea– merezi duen soinekoa duzu.

MIKEL ASURMENDI

k u l t u r a g e n d a

Otsailaren 20ra arte

- Euskadiko Kutxan, PROSALUS GKEaren argazki erakusketa.

Otsailaren 27ra arte



- Amaia KZn, *Cruzcampo Fundazioa-Calahorrako Hiria Pintura Lehiaketa*

Nazionalera aurkeztu diren obren hautaketa. Ohi beza-la, obren gaia gastronomiari buruzkoa da.

Otsailak 19

- Amaia KZn, 20:00etan, Lucas eta Marwan kantautoreen kontzertua.



Otsailak 20

Inauteriak Irunen

- **Otsailaren 26tik martxoaren 13ra**, Amaian, inauterietako karte-len erakusketa.

- **Otsailaren 26an**, Kaldereroen konpartsa 19:00etan Alberto Angera plazatik abiatuko da eta Zabaltza plazan bukatuko da.

- Otsailaren 26an, 19:00etan, Alberto Anguera plazatik Kaldereroen konpartsa abiatuko da.

- **Otsailaren 27an, 12:00etan**, Iñude eta Artzaien konpartsa. Ibilbidea: Santiago kalea, Zabaltza plaza eta Luis Mariano kalea.

- **Martxoaren 5ean eta 6ean**, Inauterietako desfile handia Irungo kaleetan barrena.

- **PUSKA BILTZEA**: Martxoaren 6an, Olaberrian, Kemenen eskutik.




- Amaia KZn, eguerdiko 12:00etan, Irun Hiria Musika Bandaren kontzertua.

- Amaian, 17:00etan, familia guztiarentzako antzerkia. Lana: *El fantasma mentiroso*.

Otsailak 25

- Amaia KZn, 20:00etan, zinea. *London River* izenburuko filma proiektatuko da. Sarrera: 4,40 euro.

Uztailaren 3ra arte



- Menchu Gal erakusketa gelan (Urdanibia plazan), Eduardo Chillidaren obra grafikoa eta Menchu Galen marrazkiak. Ostiral, larunbat eta igandeetan.

Otsailak 22- Martxoak 6

- Euskadiko Kutxan, Irungo Argazkilaritza Elkartearen erakusketa.

Otsailak 26

Liburutegiko jarduerak

CARLOS DE AGUSTINEN MINTEGIA.

Otsailaren 17an, 17:00etan. Gaia: Soledad Puertolas-en *Compañeros de viaje*.

- **IDAZKUNTZA TAILERRA.**

Otsailaren 21ean, 19:30ean. Gaia: Traba

- **IRAKURKETA KLUBA.** Otsailaren 22an, 19:00etan Mertxe Trancheren eskutik. Gaia: *Mujercitas*.

- **HAURENTZAKO IPUINAK.** Otsailaren 23an, 17:30ean. (Gaztelaniaz).

- **HELDUENTZAKO IPUINAK.** Otsailaren 24an, 19:30ean. *Historia del trono*, Blai Senabrereren eskutik.

- **POESIA TALDEA.** Otsailaren 28an, 17:30ean, *Cavafis*, Jesus Rodriguezen eskutik.



Human BODIES erakusketa Ficoban



Non: Ficoban

Noiz: Urtarrilaren 21etik apirilaren 24ra.

Human BODIES... The Exhibition giza-gorputzaren inguruko erakusketa ospetsua ikusgai izango da, lehenbiziko Gipuzkoan.

Erakusketa giza-gorputza ezagutzeko bidaia ikusgarria da. Hartara, 12 gorputz osorik eta 100 organo inguru ekarri dira, guztiak ere errealak, platinazio deituriko teknikaz tratatuak.

Ikus-entzuzkoa, euskaraz

Otsailaren 24an, Amaia KZn, 1.000 miliako bidaia lehen pausoarekin hasten omen da euskarazko ikus-entzuzkoa.

Izarok eta Urdinek munduari bira eman zioten. Zenbakiak esanguratsuak dira: 20 hilabete iraun zuen bidaiari 20 bat herrialdetatik igaro ziren eta 441 eguntan 23.265 km egin zituzten. Eraitza lan hunkigarrian laburbildu dute.



Orrialde hauetako informazio guztia, zabalago, www.irun.org/igazte webgunean.

Lehiaketak



- **FANTASIAZKO IPUIN LABURREN UNIBERTSITATE-LEHIAKETA.** Nahi duen orok parte har dezake. Lanak euskaraz edo gaztelaniaz idatziak izan daitezke.

1.400 euroko bi sari eman-go dira. Epea: Apirilak 15.

- **LEIOAKO POP ROCK LEHIAKETA.** Baldintzak: 5 kantuko maketa postaz bidali behar da www.irun.org/igazte helbidetan informazio gehiago. Epea: Martxoak 20.

- **JET LAG BIO 2011 BILBON OSPATUKO DA.** Haren harira, bi deialdi zabaldu dituzte:
- Blogerra izan nahi duzu eta JET LAG BIOren berri eman? Epea: Martxoak 4.



- Gazte-ekimen bat duzu eta aurrera eramateko dirua behar duzu? Aurkez ezazu Jet Lag 11 Ideiak Lehiaketara.

Bekak



- **ERASMUS BEKAK** Europako enpresetan praktikak egiteko. Baldintzak: UPV-EHUko ikasle izatea. Epea: Ekainak 1.

- **BIDAIA ETA ABENTURA EKINTZETARAKO BEKA LEHIAKETA.** Hiru beka banatuko dira: 6.000, 4.000 eta 2.000 eurokoak. Epea: otsailak 28.

Lana



- **EURES-EN LAN ESKAINTZAK.**

- Gaztelania irakasalea Ingalaterrarako. Epea: Otsailak 18.

- Bidaia koordinatzailea Ingalaterrarako. Epea: Otsailak 23.



Bisita ezazu Euskararen webgunea

Irungo Udalaren euskararen webgunea bisitatzen gonbidatzen zaituztegu. Informazio eta tresna ugari guztientzat eta bereziki GAZTEENTZAT.

www.irun.org/euskara

Facebook-en ere topatuko gaituzu





LA IMAGEN DEL DIA

Gipuzkoa TB Txingudiren
tarte berria

Bidaliezaguzu argazki bat:
paisaiak, ekintzak, salaketak...
Egunero bat aukeratuko dugu.





PROGRAMAZIOA

2011

Txingudiri buruzko programak

	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala
8:30-9:00	Euskadiko berrien laburpena	Euskadiko berriak (Errepikap.)			
9:00-9:30	Txingudiko berrien laburpena	Txingudiko berriak (Errepikap.)			
12:30-13:30	Foro Abierto (Errp.)	Tiempo Real (Errp.)	Gipuzkoako gaiak (Errp.)	Foro Abierto (Errp.)	Micrófono Abierto (Errp.)
13:30-14:00	Txingudiko berrien laburpena (Errp.)	Txingudiko berriak (Errepikap.)			
17:30-18:30	Foro Abierto (Errp.)	La Banatua (Real Union) (Errp.) 17:30-19:00	Tiempo Real (Errp.)	Hablando Claro (Errp.)	Micrófono Abierto (Errp.)
20:30-21:00	Euskadiko berriak				
21:00-21:30	Txingudiko berriak				Asteko berrien laburpena
21:30	La Banatua (Real Union) 21:30-23:00	Euskadiko magazina 21:30-22:30			Zinea
		Tiempo Real 22:30-23:30	Hablando Claro 22:30-23:30	Micrófono Abierto 22:30-23:30	
Larunbat eta igandeetan					Larunbatetan
12:00-14:00 Asteko Txingudiko Berrien errepikapena		20:30-22:30 Asteko Txingudiko Berrien errepikapena			18:00-19:00 Micrófono Abierto (Errp.)

Kozinatu gabeko jatorri
begetaleko hondakinen

BILKETA BERRIA

Eskura ezazu
DOAN edukiontzi
berri hau irekitzen
duen **giltza**
ekologikoa!

**PARTE
HARTU!**

Non?

Antzaran, Pinudi, San Migel,
Amute, Puntala.



902 119 384

www.txinzer.com



Biltegi eta bulegoak:
Txirrita Maleo 4 - 20100 Errenteria

Dendak:
San Francisco, 15 - 20002 Donostia
San Francisco, 24 - 20002 Donostia
Duque de Mandas, 45 - 20012 Donostia
Isabel II, 15 - 20011 Donostia
Plaza Aralar, 1 - 20100 Errenteria
Avda.de Ezkiaga, 1A-1B - 20200 Beasain
Leizeaga, 3 - 20570 Bergara
Salvador Etxeandia, 6 - 20304 Irun

Erka Osagai Elektrikoak S.L.
c\ Salvador Etxeandia, 6 Behea
Tel: 943 62 52 49 Fax: 943 53 73 48
20304 Irun



- Industriako eta etxeko instalazio elektrikoak biltegia.
- Lanpara erakusketa.